

Eskatu gabeko aholkuak

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Oraindik ez zinen nire sabelean eskatu gabeko lehendabiziko aholkua iritsi zitzaidanean: «Ez izan presarik. Obuluak izozteko aukera badela badakizu, ez?». Gehiegi konpartitu nuen nire asmoa. Jaio eta biharamunean, zera erran zidaten ohan-tzea aldatzen ari ziren bi langilek: «Sehaskan utz dezakezu, e». Elkarrekin lo eginen genuela kontatu nienean ederra aditu nuen: «18 urterekin ezingo duzu bidali!». Sobera partekatu nuen, berriro.

Handik hilabete gutxira, bizkarrean min nuela eta fisioterapeutarengana joan nintzen. Kontu kontari hasi eta arratsean titia ematen nizula aipatu nionean –badakit, harri berean erortzen naiz– «adarra jotzen ari zaizu» bota zidan.

Fruta erosten, aulkitxoa hotz egiten duen espazioko atean uzten ari nintzela, auzokide batek: «Ez duzu horrat sartuko, ezta? Ni geldituko naiz berekin». Ez zela beharrezkoa erantzun arren, berea egin zuen. Zuri argazki bat egiten ari nintzela, hutsik zegoen aulkitxoa eskapatu zitzaidanean, paseatzen ari zen batek: «Eskerrak umea ez zegoen».

Hazten ari zara –gara– eta tartean aditu ditugu: «Haur mimatua da, zuekin nahi duena egiten du», «bularra oraindik, e?», «beti besoetan, beti besoetan, ez daki oinez?», «gehiegi ohitzen ari zara besoetara»; kale erdian oihuka deitu ninduten behin, zer izango eta: «Nola duen aurpegia, eramango zenuen dermatologoarengana, nik frantses bat eza-

gutzen dut hagitz ona...»; parkean zubira igo nahi ez zintudanean, ez nuelako segurua ikusten: «Ez da deus pasatzen», insistitzen; «haurtzaindegira eraman beharko duzue datorren kurtsoan, eskolara ohitzeko»; hiru bilobarekin itota dabilela eta kexu zen amatxi batek nire amari, zu «bakarrik» ikusita: «Ez da animatzen bertze bat izatera?».

Hoberena amaierarako utzi dut: «Zurekin egiten du lo, e? Gaizki. Nerabe heavyenek gurasoekin lo egiten dute», non eta ordura arte errespetuzko zentro bat zela uste nuenean.

Bertzeen bizitzetan sartzea errotutako ohitura dugu, Unax. Horra nire eskatu gabeko aholkua: fidatu zure buruaz, bertzeek diotenari begira egon gabe. •

Maitasuna

**Xabier Mikel
Errekondo**

Behin xaman mexikar bati entzun nion maitatu edonor maita genezakeela, baina maitemindu amarekin baino ez. Ez da nire asmoa maitasun mota posibleen tesia osatzea, ezta hurrik ere; ulertzen dut ezberdinak garen aldetik norberak baino ezin duela deskribatu sentitzen duen maitasuna. Nik nireari baino ez diot heldu nahi.

Nork ez du maite ama? Muturreko salbuespen batzuk aparte eta arrisku handirik hartu gabe, esango nuke edozein etxetan amak bereak eta besteen lanak erruz dituela egin, eguna joan eguna etorri, aitortu gabeak gainera gehienetan. Maite dut ama. Amarengan pentsatzen dudak bakoitzean kon-

turatzen naiz indar osoz maite dudala eta, hala ere, gogoan dut zenbat kosta zitzaidan aurrez aurre adieraztea, hain justu, 28 urte nituela senideen etxea utzi eta itzuli nintzenean, muxu bat eta besarkada batez. Nago, orokorrean sentimenduak ezkutatu zale garela, ezkutua erantsita goazela geure burua zurituz: «Berak badaki maite dudala, zertarako adieraziko diot ba...». Martxoaren 8an agian, *no comment...*

Nork ez du maite aita? Maitatzea eta maitatzea ez dira gauza bera, eta maite dut aita, nire aita... indartsu bezain hauskor, etxekoon zaindari, orain alai orain egoskor, jakintsu eta emankor, pilotazale amorratua, errebote eta joko garbi jokalaria zubietar, naturaren

eta musaren maitale. Gaztetatik txapela buruan, nork maite nor, biak elkarren behar bailiran, biak bat eta bakar, totema, etxean baino eranzen ez zuena.

Agian sarritan gertatzen da urruntzeak erakustea bertatik ikusi gabekoa. Agian urruntzeak erakutsi dit auserdia izaten edo behintzat ezarri ezkutua alboratzen, arriskatzen eta sentitutakoak besterik gabe adierazten. Agian ariketarik osasuntsuena izan zait. Benetan sentitutako muxuek, bostekoek eta besarkadek ezkutua hautsi zidaten betirako eta konturatu nintzen jasotzea bezainbeste behar nuela ematea. Muxutxo bana, maiteak. •